

laboral **hezkuntzako**

Ikasturte Hasierako Zirkularra *Hezkuntza Bereziko Espezialisten* *egutegi eta ordutagia*

Ikasturtero zalantza berdinak, arazo berdinak, eskaera berdinak... Hezkuntza Bereziko Espezialisten ordutegiaz eta egutegiaz hitz egitea ez da gauza berria, oso ondo dakigu. Baina, ikasturte honetan gertatzen ari dena aipagarria da, benetan.

Nork bete behar ditu ordutegiak? Nola konputatzen da bazkaltzeko ordua jardunaldi mu-
rriztuetan? Koordinatzeko orduak, nola azaltzen dira ordutegian?... Horrelako galderak
sarritan heltzen baitzaizkigu, behin eta berriro duda horiek argitzea eskatu diogu Admi-
nistrazioari.

Ikasturte honetan, azkenean, animatu dira eta ikastetxeetako zuzendariei zirkularra bi-
dali diete Hezkuntza Bereziko Espezialisten ordutegiak eta egutegiak osatzeko argibideak
azalduz. Nahiz eta gauza guztiekin ados ez egon, zirkular honek argi bat pizten du gure
zalantzen itsasoan, eta ez da gutxi. Prozesuaren urratsak nork eta nola bete behar dituen
adierazten da eta, baita islatu behar diren jarduerak (garraioa, jantokia, koordinazio or-
duak...) ere.

Honekin ikasturte hasierako arazo guztiak konponduko zirelakoan poz-pezik geunden,
baina ez da hori gertatu. Alde batetik, zirkularra ikastetxe guztietara ez dela heldu ema-
ten du, eta beste alde batetik, dokumentuak dio espezialistek ez dutela parte hartuko
ordutegia eta egutegia betetzerakoan. Hau dela eta, egoera ez da konpondu eta kolekti-
bo honetan arazoak, zalantzak... zabal dabilta.

Administrazioak egin duen saiakera eskertzekoa da, baina argi dago ez dela nahikorik
izan, beraz, egon zaitezte ziur datorren ikasturtearen hasieran berriro hitz egingo dugula
gai honetaz. Ordura arte★

Liberatuak eta Egoitzak

Liberatuen arratsaldeetako dedikazioan aldaketa bat egon da (iraileko aldizkarian argita-
ratu genuenare. Hona hemen nola geratzen den:

LIBERATUAK ETA EGOITZAK			
05-06 IKASTURTEA			
Ordutagia	BIZKAIA	GIPUZKOA	ARABA
Liberatuak	Elena Ana	Jone	Garbiñe
Arratsaldeak	Asteartea Osteguna	Osteguna	Asteazkena